

argitalpena

Adopzioaren inguruko erreportaia
Sakanako 'Guaixe' aldizkarian

Sakanako *Guaixe* aldizkariak, adopzioaren inguruko erreportaia kaleratu du bere azken alean. Bertan, adopzio kasu zehatzak aipatu dituzte, protagonistei elkarriketa eginez. Lekukoen testigantzarekin batera, Nafarroako datuak ere eman ditu *Guaixe* aldizkariak: 2000. urtean, 156 haur hartu ziren Nafarroan, Ongizate Institutuaren arabera.

Argitaratzailea: **Bierrik elkarte**.

aholkua

Aurpegiko azala eder eta osasuntsu
edukitzeko modua

Aurpegiko azala kaltetzen duten gauza asko dago, eta egunean zehar hainbat eraso jasaten ditu zonalde horrek, tartean tabakoaren kearena. Begiko ingurunea garbitu gauero rizino olioan bustitako kotoi batekin. Aurretik olio hori epeldu apur bat. Horrez gain, begien gainean ipini minutu batzutan kama-milarekin bustitako kotoiak.



19:30ean, Urigai kultur etxean. Bertan izango dira Idoia Astigarraga eta Andone Esparza zuzendariak, eta Pilar Rodriguez, Arantxa Izeta eta Idurre Ugalde aktoreak.

EIBAR. 'Esta abuela es un peligro'. Bihar, 18:00etan, Gua parkeko Armeria Eskolan.
GETXO. 'Enemigo a las puertas'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan Areetako Gran Cineman. Sarrera: 2,40 euro.
'Uxo' eta 'El ultimo Haren'. Bihar, gaueko 22:00etatik aurrera.

hitzaldiak

DONOSTIA. 'La lucha contra el TAV: ¿asambleas o plataformas'. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Koldo Mitxelena kulturgunean. Hizlaria Miguel Amoros izango da, eta ondoren eztabaida bat izango da.
LARRABETZU. 'Sarri gure artean'. Gaur, Larrabetzuko gaztetxean, Iñigo Aranbarriren eskutik, 20:00etan. Ondoren, poesia errezitaldia herritarren eskutik.
SORALUZE. 'S.O.S Arrazakeria'. Bihar, 19:00etan, Gaztetxean.
ZUMAIA. 'Fauna mehatxatuta. Gipuzkoan Biso Europarra'. Bihar, ostirala, Iñaki Irizar zoologoaren eskutik.

bestelakoak

BILBO. 'Kartzeletako lanak' liburuaren aurkezpena. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Likiniano infogunean, Jon Etxeandia eta Jose Anton Olagorta egile eta preso ohien eskutik.
ERMUA. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak. Bihar, arratsaldeko 16:00etan eta 18:00etan, Zinemana. Sarrera: 2 euro.
DONOSTIA. 'Eskailera'. Gaur, poesia eta gitara emanaldia iluntzeko 21:30ean, Donostiako Egia auzoko Beti-Boga tabernan.
GASTEIZ. Discolo zirkua. Bihar, 18:00etan Hegoalden.
GERNIKA. Gernika-Lumo Xake lehiaketa. Gaur eta bihar, Gaztelekuan, arratsaldeko 16:30etik gaueko 21:00etara.
IRUN. Ipuin kontaketa helduentzat. Gaur, Oihulari Klown taldearen eskutik, 20:00etan,

bertsolaritza

Aitor Sarriegi, Nerea Elustondo, Amets Arzallus, Sustrai Colina. Bihar, Legazpiko Latxartegin. (22:00)

SUSTRAI COLINA BERTSOLARIA

«Ez nuke izan nahi denen
ahotan dabilen norbait»

Xabier Martin | DONOSTIA

Urtea bukatu zuen bide beretik abiatuko da Sustrai Colina aurtent, bertsolaritza landuz alegia. Urtarrilaren lauan, Legazpiko Latxartegi aretoan izanen da. Txapelketa Nagusiko finala gibelean utzita, bertsogintzaren eguneroko lanari ekiteko prest da Urruñatarra.

■ **Urte berriari oparotasun handiagoa eskatzen zaio. Zuretzat berriz iazkoaren bukararen antzekoa bada, primeran, ezta?**

Pasa den urtea bukatu zen bezala jarraitzen baldin badut, aurtent ez da gauza txarra izango. Urte ona pasa dut, eta horrelaxe jarraitzea gauza ona litzateke niretzat.

■ **Beharbada Txapelketa Nagusiaren ostean, dei gehiago izango dituzu aurtent. Txapelketa horrek Colinaren izena aspaldian lortua zuen lekuan jarri al du?**

Hemendik aurrerako deiek eta egiten ditudan saioek esango dute hori. Ez dago zalantzarik belodromoak zure izena informazioaren lehen lerroan jartzen



GARI GARAIALDE

duela, baina ez nuke izan nahi denen ahotan dabilen norbait. Oraintxe artekoa izaten jarraitu nahi dut, eta bertsotara deitzen didaten tokietan ahal bezain ongi kantatzea da nire asmoa.

■ **Bertsolaritzaren barruan geroaren ordezkari ikusten al duzu zure burua?**

Gure maila emateko ordua iritsi dela uste dut. Ardura pixka bat hartzeko ordua dugu. Hala ere, argi dago gaintetik belaunaldi bat edo bi baditugula, eta horiei egokitzen zaiela plazan duten tokia hartzea, eta bertsotan gehiago egitea. Guk haien babesean ikasi behar dugu.

■ **Batzuek diote, Ametsekin lagun gisa ez ezik, bertsolari gisa ere parez pare ibiltzeko gauza zarela orain...**

Horiek kazetarien gauzak dira. Azken boladan bertso eskolan batera ibili gara, eta nik banekeen egun batean sekulako egurra ematen ahal zidala, eta beste berari ere emateko gauza nintzela. Txapelketa honetan niri egokitu zait finalean sartzea, eta Nafarrokoan berari egokitu zitzaion. Jokoaren gazi-gozaok dira horiek.

Udal liburutegian.

MUNGIA. Mugak Salta zirkua. Bihar, Mungiako frontoian.

ORDIZIA. Haur parkea. Gaur eta bihar, 11:00etatik eguerdiko 13:30 arte. Arratsaldean, 16:00etatik 20:00ak arte, Plaza Nagusian.

erakusketak

BARAKALDO. Beurko taldearen erakusketa. Urtarrilaren 11 arte ikusgai, Erakusketa udal aretoan.

DONOSTIA. 'Neguko Solstizioa'. Urtarrilaren 13a arte ikusgai izango dira Estudio Arte aretoan (Zubiaurre Pasealekua, 78 B), Basterretxea, Oteiza, Txillida eta Bikondoaren mailako 30 artistek eginitako pintura eta eskultura lanak. Orduetgia: goizeko 11:00etatik

eguerdiko 13:00etara, eta, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Deitu 943297221 telefonora.

ELGOIBAR. 'Sokamuturra' argazki erakusketa. Urtarrilaren 6a arte izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan. Eduardo Arrillaga argazkilariaren lana da.

GASTEIZ. 'Variaciones de piel'. Urtarrilaren 8a arte, Gasteizko Taberna de los Mundosen (Independentzia, 14), Elssie Ansareoren argazkiak.

GETXO. 'Bosteko 2001: Xabier Agirre, Baroja Collet, Adrian Ferreño, Isabel Garai eta Ricardo Toja'. Hilaren 30a artean, Erakustaretoan. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 astegunetan, eta 11:00-13:00 jai egunetan.

IRUÑEA. 'Ur gailurrak'. Mikel

Arroyoren argazkiak ikusgai urtarrilaren 20a arte, Ametzagainako Beti-Boga tabernan.

ONDARROA. 'Ondarroako historia laminetan'. Urtarrilaren 14a artekoan udal erakusketa aretoan izango da ikusgai.

ikastaroak

ARRASATE. Perkusio afrikarra. Ikastaroa urtarrilaren 7, 14 eta 21ean izango da Gazteluondon. Izen emateko deitu telefono honetara: 943798025.

BILBO. Tango ikastaroak. Tangoaren oinarriko pausoak ikasteko, Garua elkartearen eskutik. Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan,

23:00etatik aurrera.

'Historias inmortales, fuentes y relatos de los cuadros de historia'. Bilboko Arte Eder museoan egingo da, urtarrilaren 9tik martxoaren 13ra. Hainbat adituk pinturaren historia aztertuko dute. Izena emateko, deitu 94 4396060 telefono zenbakira, edo bertara joan.

DONOSTIA. Drogodependentzien farmakologia. Urtarrilaren 17an eta 18an egingo da Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean, 258 gelan. Joseba Pineda eta Jose Javier Meana EHUko Medikuntza eta Odontologia fakultateko Farmakologia Saileko irakasleak izango dira hizlari.
HERNANI. Idazkuntza ikastaroa. Urtarriletik ekainera

egingo da. Matrikulazio epea, urtarrilaren 10ean amaitzen da. Informazio gehiago: 943332799.
GASTEIZ. Dantza eta Gorputz hizkuntza ikastaroak. Hilaren 26tik gaur arte poesia eta dantza ikastaroak izango dira Hegoalde antzokian. Izen emateko, 945140115 telefono zenbakira deitu.
GERNIKA. Euskara Elkartearen kudeaketari buruzko jardunaldiak. Urtarrilaren 18an eta 19an. Euskara elkartearen Prestakuntza iraunkorra eratu eta planifikatzeko oinarriak jartzea izango da jardunaldien helburu nagusia. Izen emateko epea: urtarrilaren 10a arte. Matrikulazioa 15.000 pezetakoa izango da parte-hartzaileentzat, eta 12.000koa Topaguneko bazkideentzat.